

Biziko da

Igor Martínez García
DBH 3. eta 4. kurtsoak 2. saria
Tafallako Garcés de los Fayos Ikastola

Pi—pi, pi—pi, pi—pi,
Zer daukagu, erizaina?
Labanarekin zauritu dute.
Baina, biziko da?
Ez dakit, odol asko dario.
Baina, biziko da?
Ez dakit, zauri asko ditu.
Baina, biziko da?
Ez dakit, oso larri dago.
Baina, biziko da?
Gauza gehiago eta
Okerragoak pasa ditu
Eta beti irabazle atera da.
Baina, irabazle izan bada
Denon ilusioarengatik izan da.
Euskara balioztatzen
Hasi gara 112ra deitu ondoren.